**9.Eranskina**

# IRAKASLEAREN GALDERAK ETA IKASLEEN ERANTUZN NABARMENENAK

| IRAKASLEAREN GALDERAK | IKASLEEN ERANTZUNAK |
|---|---|
| • *Zer esan nahi du denok desberdinak garela? Eta bereziak? Eta bakarrak? Eta garrantzitsuak?* | • *Bakoitza mundu bat da, ezaugarri propioak dituena.* |
| • *Gainerakoak diren bezalakoak onartu behar dira? Eta hori betetzen dugu?* | • *Pertsona guztiak onartu behar ditugu, inor ez da bestea baino hobeagoa.Gehienetan betetzen dugu, dena den, batzuetan lagunak zirikatzen ditugu.* |
| • *Inoiz, beste norbaiten fisikoarekin sartu zarete? Zergatik? Eta zuen fisikoarekin sartu dira? Gustatu zaizue?* | • *Bai, beste ikasleen fisikoarekin inoiz sartu gara.* (Zergatia ez dute erantzun, isilik geratu dira*). Baina txikiei ez diegu ezer esan behar*- erantzun du ume batek. Horren aurrean, orduan ea nagusiekin sartu behar badiren galdetu zaio eta berak ezta ere erantzun du.<br>• *Nire fisikoarekin ere sartu dira, baina ez zait inporta* –erantzun du ume batek, gainerakoak isilik geratu diren bitartean. |
| • *Munduko beste puntan jaiotzen den beste ume batek, eskuekin jateko ohitura baldin badu, berarekin sartu gaitezke?* | • *Ez, ezin gara sartu, berak bere kulturan indarrean dauden baloreetan oinarriturik jokatzen duelako. Berak bere kultura dauka, eta guk, aldiz, gurea, haien artean desberdinak direnak.* |

*1, Taula. Irakaslearen eta ikasleen erantzun nabarmenenak eta esanguratsuenak*

| IRAKASLEAREN GALDERAK | IKASLEEN ERANTZUNAK |
|---|---|
| • *Aurrekoan bezala pentsatzen jarraitzen duzue? Gai zarete landutakoarekin loturak azartzen?* | Honen inguruan, ikasleek, berriz ere azpimarratu egin dute bakoitza mundu bat dela. Bakoitzak bere ezaugarriak dituela eta inork ezin duela horregatik mespretxatu edo dena delakoa. Honekin batera, bakoitzak bere burua den bezalakoa onartu egin behar du eta berarengan sinestu nahi duena lortu ahal izateko. Inor ez da bestea baino gehiago ezaugarri jakin batzuk izateagatik. |

*2, Taula. Irakaslearen eta ikasleen erantzun nabarmenenak eta esanguratsuenak*